

Jaiak Urritzen

Egun batzuk aspaldi baten galdu ebenuren jaiegun nortasuna. Kandelario, adibidez, sasoi baten naiko jai aundia, jaiardi izatera eroan eben, eta ibiliaren ibiliaz jai izan zanik be ez dakie gaurko gazte askok. Leenago, onelako egunak ainbeste izan be Euskalerrian, eta eske-eguna zan gainera. Jaunaren Igokundea eguenez egiten zan eta nork pentsauko eban ba astegun buruzuri geldituko zanik eguen ori? Domekara eroan eben bere liturgia. San Juan edo euskaldun jatorrak esan oi dabenez, Doniane be nainko entzutetsua genduan. Orain sokasaltoan dabil, batean badala, bestean ez dala... San Pedroren egunak be bereak esanerazo zituan. Alako jai aundia kenduko ebenik... Eta olantxe mordoskea, bata gaur eta urrengoan bestea. Azkenengo entzun doguna San Joserena da. Konstituzino eguna jai dan ezkeru, gure Komunitate Autonomoan kendu egiten ei da aurtendik.

Mormoxinoak barra-barra dabilz andik eta emendik. Eleizeak jaiok kentzea onartzen badau, fedea kentzen diarduala; Jaurlaritzak kentzen badau, fedebakoa dirudiala. Jaurlaritzak kendu arren Eleizeak jai giroari eutsi gurarik jaiari berea emonik kristinauei aukerak eskeintzen jarraitzeko dinoanean be, eleizetan egunerxokoez gainerako gitxi.

Gure artean jai lez jarraitzen daben egun batzuk aspaldietatik astegun ditue beste ainbat lurraldetan. Eta egunok gorabeera, erriotan ez dago fede gitxiagorik, ez katekesi makalagorik, ez Eleizerbitzurako bokazino gitxiagorik. Gauzak otz-otzean artu ezkeru, orixe emoten dabe gainbegiratu baten.

San Jose egunak baeban alan eta guttiz be gure artean apartekotasun bat.

Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Elizbarrutietan, lekuko Eleiza oneen ardura-pean ipinitako Mixino lurraldeen gomuta eguna izaten genduan. Urtean bein beintzat, pare-pareko teilea kendu eta kristinau bokazinoaren ituginari tanta bat buru eta biotzera jausteko aukerea emoten geuntsan. Ez zan gauza aundirik, baina zeozer beintzat. Liturgia urrengo domekara eroanik konpondu leitekela arazoa? Zalantzarik be ez. Nik erri-erriaren aotik entzuten diran gauzatorren batzuk baino ez ditut aitatzen emen. Urte gitxi batzuetara, jai izan zanaren gomutea be galduta gazte guztien gan eta nagusienga be... larri ibili.

Jaiok kentzen dirala eta protestaka jardun bearrean, ez ete litzateke egokiazgo izango jaiak zertarako ditugun sakontzea? Eleizearen asmoa garbi dago: Alako egi edo pertsonaia bat gogoratzen dogula eta geure kristinau fedearen ospakizuna alkartean egitea, eta trankilago ibili gaitzean, beste bear ardurak be kentzea. Ospakizun oneetan zintzo jarraitu dabenak protestaren bat edo beste edo geiago egiteak, bere esangurea euki lei; ardura ori aazturik, ibilteko edo bezperako biaramona samurtzeko goiz beranduak arte oean egoteko danean, jai leendik be kenduta egoan orralakoarentzat, fededunen jai beinipein. Parrandarako aitzaki eta atsedenerako egun lez artzen bada, orduan isildu egiten naz.

San Jose egunaren jaitasuna be kendu egiten ei dabe. Bizi giroan genduan jokereari erantzunez ala bizi-bizirik genduan fededunen jaia kenduaz emon ete dabe pausu ori? Ortze dago untzea, eta orixe aztertu bearko litzateke.

S. BARRUETABEÑA, cp.